Zumaiako Udala

2014IAKU0003-009-002

# 77. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2014ko otsailaren 27an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**
Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi jn.
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Aitor Leiza Alberdi jn
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Ez bertaratuak**
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Xabier Gallastegi Idigoras jn.
Isidro Fernandez Echave jn.

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIAK

## 1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (72. zbkia - 2013.10.31)



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

72. zbkia duen akta onartzen da

## 2.- <u>OGASUNA.-</u>
## 2.1.- IRIZPENA:
## 31. KREDITU ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

***"2014KO OTSAILAREN 21EKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA :2013ko UDALAREN AURREKONTUAREN 31. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.***

**AURREKARIAK**

2014ko otsailaren 21eko Ogasun Batzordean, Zumaiako Udaletxeko 31. kreditu aldaketa proposatu zen, kreditu transferentzia modalitatekoa.

Kreditu aldaketa hau jarraian aurkeztu ditugun partidetan azkeneko fakturak kontabilizatzeko diru falta dagoelako da. 422 programa funtzionalean( Ikastetxeak edo irakaskuntza zentroak): konponketetan, argian, gasean eta eskola kontseiluan aurreikusitakoa baino gehiago gastatu da. 432 programan ( Hirigintza eta arkitektura), erabilgarri gelditzen den zenbatekoa ez da nahikoa azkenengo fakturentzako eta 433( Kaleko argikuntza) programan berdina gertatzen da azkeneko Iberdrolako fakturekin.

- **Zumaiako Udalean:**

78.279,47 eurotako transferentzia eskatu zaion partidaren kredituaren baja ez da zerbitzuaren kalterako izango. Halaber, aipatu kreditu murrizpenak ez die entitate honen interes orokorrei eragingo, ez eta horiek oztopatuko ere. Murrizketa honekin kreditu globala bukatzen da eta etxez etxeko zabor bilketarako partidaren zenbatekoa jaisten da, jada zabor bilketan, 2013ko faktura guztiak kontabilizatuta daude eta.

Proposatutako aldaketak ez du hasiera batean onetsitako aurrekontuaren guztizkoa aldatzen, 78.279,47 eurotako egin beharreko kreditu gehikuntzak beste kreditu batzuetan kopuru bereko bajak eginez finantzatzen baitira. Zenbateko hau beharrezkoa da 2013ko faktura batzuk ordaintzeko.

Gastuen aurrekontu partida desberdinen arteko kreditu transferentzia horiek adierazitako 21/2003 Foru Arauko 29.4 artikuluan ezarritako mugak bete egiten ditu.

Aztergai ditugun kreditu transferentziek ez dute defizitarik sortzen horiek eragiten dioten aurrekontuaren guztizkoan -gehitzen diren kredituen zenbatekoa (altak) bat baitator transferitzen diren kredituen zenbatekoarekin (bajak)-, ez eta eragiketa arruntetan ere.

Proposamenean jasotako kreditu transferentziek programa funtzional ezberdinen artekoak direnez, eta, gainera, eginkizun egitarau ezberdin batzuen arteko transferentziak erakundeko buruak onetsiko ditzake, jatorrizko eta destinoko egitarauetako aldaketen diferentzia metatuak aurreikusitako hasierako zainpeketen %25 gainditzen ez dutenean. Baina kasu honetan zenbateko hau gainditzen denez, erabakia udalbatzak hartu behar du.

**Udala 31.kreditu aldaketa: Kreditu transferentzia.**



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

| | | Hasierako kreditua | Gutxikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 1000.226.190.00.99 2013 | Kreditu globala | 23.772,00 | 23.772,00 | 0,00 |
| 1 0100.227.442.10.99 2013 | Etxez etxeko zabor bilketa | 278.648,00 | 54.507,47 | 224.140,53 |
| **GUZTIRA ...** | | **302.420,00** | **78.279,47** | **224.140,53** |

| | | Hasierako kreditua | Gehikuntza edo altak | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.212.422.00.04 2013 | Aita-Mariko igogailuaren mantenimendua | 3.710,00 | 922,96 | 4.632,96 |
| 1 0100.212.422.00.03 2013 | Sagarbideko igogailuaren mantenimendua | 2.199,00 | 578,69 | 2.777,69 |
| 1 0200.222.422.00.01 2013 | Telefonoak hezkuntza | 2.850,00 | 1.541,89 | 4.391,89 |
| 1 0100.211.422.00.02 2013 | Herri eskola Sagarbide | 4.000,00 | 212,02 | 4.212,02 |
| 1 0100.221.433.00.01 2013 | Hornidurak: kaleko argia | 179.550,00 | 33.800,52 | 213.350,52 |
| 1 0100.221.422.00.01 2013 | Energia elektrikoa. Hezkuntza | 26.125,00 | 6.349,52 | 32.474,52 |
| 1 0100.212.432.00.03 2013 | Kaleko igogailuen mantenua | 12.782,00 | 2.417,76 | 15.199,76 |
| 1 0100.625.432.00.01 2013 | Hiri altzariak | 20.250,00 | 1.229,36 | 21.479,36 |
| 1 0100.227.422.00.01 2013 | Garbiketa. Hezkuntza | 248.000,00 | 31.226,75 | 279.226,75 |
| **GUZTIRA ...** | | **499.466,00** | **78.279,47** | **577.745,47** |

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2014ko otsailaren 21ean, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 2 (BILDU).
Aurkako botoak: 2( EAJ).
Abstentzioa: 0.

Aldeko irizpena jasotzen du, ogasun batzordeko lehendakariaren aldeko botoagatik eta honako PROPOSAMEN hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

Zumaia 2014ko otsailaren 21a.

Zumaiako Kontu-hartzaileak."

Arritokieta Gonzalezek (BILDU) argitu du kreditu aldaketak ez duela onarpena behar %25 baino gehiago handitzen ez bada kopuru totala, kasuan gertatu den bezala.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du urtea bukatu eta bi hilabetetara oraindik kreditu transferentziak egiten jarrera eta aurreko urteko ekitaldia itxi gabe egotea eta guk eskatuko genuke ahal bada izanez gero behintzat, kudeaketa hobeago edo eraginkorrago baten mesedetan honelako gertaerak edo horrelako gauzak ekiditeko barne instrukzioak edo neurriak hartzea.
Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) itxi gabe dagoen aurrekontu baten gainean eta partiden egoera ezagututa kreditua ezin erabili izana arraroa iruditu zaio;


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

lehenago aurreikusita egon behar luke atzerapen inozo honetan ez erortzeko.. Honek guztiak itxiera ere atzeratzea suposatuko duela esan du.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 6 boto (5 BILDU, 1 ARALAR)

**Kontrako botoak:** 3 boto ( EAJ-PNV)

**Abstentzioak:** boto 1 (PSE-EE)

**Erabakia**: 31. kreditu aldaketa onartu da behin betiko izaeraz

---------------------------

## 2.2.- KREDITU ALDAKETEN JAKINARAZPENA (29 eta 30).-

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **29.kreditu aldaketa, HC** | | | | |
| 884/2013 alkate dekretua, 2013ko abenduaren 31 | | | | |
| | | **Hasierako kreditua** | **Gehikuntza edo altak** | **Amaierako kreditua** |
| 1 1000.227.611.00.09 2013 | Diru-bilketa zerbitzua | 163.429,12 | 21.900,96 | 185.330,08 |
| **GUZTIRA ...** | | **163.429,12** | **21.900,96** | **185.330,08** |
| | | **Hasierako kreditua** | **Gehikuntza edo altak** | **Amaierako kreditua** |
| 2.000.130.000.00.01.2013 | Jarduera ekonomikoak | 363.551,26 | 1.934,57 | 365.485,83 |
| 2 0000.393.000.00.01 2013 | Berandutza interesak | 14.783,15 | 1.288,27 | 16.071,42 |
| 2 0000.112.000.00.02 2013 | Hiri ondasun higiezinen gaineko zerga | 1.740.721,15 | 3.644,33 | 1.744.365,48 |
| 2 0000.113.000.00.01 2013 | Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga | 609.983,67 | 693,31 | 610.676,98 |
| 2 0000.391.000.00.01 2013 | Isunak | 93.225,47 | 4.929,53 | 98.155,00 |
| 2 0000.310.000.00.01 2013 | Etxez etxeko zabor bilketa | 682.588,95 | 210,42 | 682.799,37 |
| 2 0000.114.000.00.01 2013 | Plusbaliak | 163.140,89 | 348,05 | 163.488,94 |
| 2 0000.321.000.00.04 2013 | Mahaiak, azoka lurraren erabilera | 27.131,75 | 51,53 | 27.183,28 |
| 2 0000.112.000.00.01 2013 | Landa ondasun higiezinen gaineko zerga | 4.352,40 | 45,20 | 4.397,60 |
| 2 0000.282.000.00.01 2013 | Obrak, eraikuntza eta instalazioen gaineko zerga | 480.199,02 | 8.755,75 | 488.954,77 |
| **GUZTIRA ...** | | **4.179.677,71** | **21.900,96** | **4.201.578,67** |



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

| 30.kreditu aldaketa, TR | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 2013ko abenduaren 31ko datarekin, 890/2013 alkate dekretua. | | | | |
| | | Hasierako kreditua | Gutxikuntza | Amaierako kreditua |
| | | | | |
| 1 1000.226.121.00.99 2013 | Beste hainbat gastu | 9.500,00 | 1.097,47 | 8.402,53 |
| **GUZTIRA ...** | | **9.500,00** | **1.097,47** | **8.402,53** |
| | | | | |
| | | Hasierako kreditua | Gehikuntza edo altak | Amaierako kreditua |
| | | | | |
| 1 0100.625.121.00.01 2013 | Altzariak | 0,00 | 1.097,47 | 1.097,47 |
| **GUZTIRA ...** | | **0,00** | **1.097,47** | **1.097,47** |

Arritokieta Gonzalezek (BILDU) 29 eta 30. kreditu aldaketen berri eman du.

---------------------------

## 3.- BAKE-EPAILE ETA ORDEZKOEN IZENDAPEN PROPOSAMENA.-

| IZENAK | ZUMAIARRA | EUSKARA | INFORMATIKA | ESPERIENTZIA | MEMORIA | DISPONIBILIDADEA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **ESTIBALIZ FERNANDEZ ROZAS** | BAI | | | | | |
| **Mª ISABEL AIZPURUA MENESES** | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI |
| **LUCIA ARZUAGA ETXANIZ** | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI |
| **AGUSTIN ZUBIMENDI MARTIKORENA** | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI | BAI |
| **NOELIA BASTIAS GARCIA** | BAI | BAI | BAI | | BAI | BAI |
| **AINARA PEQUEÑO URANGA** | BAI | BAI | BAI | | BAI | |

“Deialdian 6 baldintza horiek eskqtzen ziren.

Horretaz gain, Zuzenbidean lizentziatuak Mª Isabel Aizpurua eta Lucía Arzuaga dira (Zuzenbidean lizentziatu izanaren titulua ez du aurkeztu); Agustin Zubimendi, berriz, diplomatua da (ez du titulurik aurkeztu).

Esperientziari dagokionez, Bake Epaile lanpostuan esperientzia zuzena Mª Isabel Aizpuruak dauka, Lucía Aruagak, berriz, abogatua izan da 18 urtetan zehar, (nolanahi ere, ez du Abogatu Elkargoaren ziurtagirik aurkeztu).-“

Alkateak gaiaren berri eman du eta, jarraian, bozkatzeari ekin diote.

## ERABAKI ZATIA



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**Aldeko botoak:** 10 boto(3 EAJ-PNV; 1 PSE-EE, 5 BILDU,1 ARALAR)

**Kontrako botoak:**

**Abstentzioak:**

**Erabakia**:

1.- M. ISABEL AIZPURUA MENESES Bake Epaile Titularra eta LUCIA ARZUAGA ETXANIZ Bake Epaile ordezkoaren izendapen proposamena aho batez onartu da.

2.- Euskadiko Justizia Epaitegi Goreneko Gobernu Sailari Azpeitiko Instrukzio eta lehen Instantziako Epailearen bidez, erabakia helarazi izendapenak egin ditzan.

----------------------------

## 4.- PROPOSAMENAK:

### 4.1.- KONTRATU PUBLIKOETAN, "KLAUSULA SOZIALAK" TXERTATZEA, BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKOA

**"KONTRATU PUBLIKOETAN, KLAUSULA SOZIALAK.**

Azken urteetan, euskal herriak pairatzen duen krisi ekonomikoak agerrian utzi du, euskal herritarrek pairatzen duten egoera. Hainbat eta hainbat egoera baztertzaile eguneroko bihurtu dira. Azken datuen arabera, Hego Euskal Herrian 219.071 langabetu dago, lan egiteko adinean dagoenaren %16,5a hain zuzen ere. Egoera larri hau aldatzeko ezinbestekoa dugu bertoko instituzioen inplikazioa.

Ba dira hainbat tresna, instituzio publikoen esketan, egoera honi buelta emateko erabili daitezkeenak. Modu justuago batean jardunaz aukera berriak ireki daitezkeenak. Horietako bat, Kontratazio Publikoa dugu. Desoreka hauek murrizteko baliagarriak izan daitezke Kontratazio Publikoak, Erakunde publikoak, eta herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak izanik Udalak, benetako ahalegin bat egitera behartuta daude. Eremu guztietatik lan eginaz, jendartean dauden desberdintasunak eta desorekak apurtzea lortu dezagun.

Azken urte luzeetan zehar, Kontratazio eta erosketa publikoa egiterako garaian, kriterio ekonomikoak erabili dira soilik oinarri gisa. Eskaintzen ziren zerbitzuen kostua izan delarik erreferentzia bakarra bide hori jorratzerako garaian. Hau aldatu beharra dago.

Kontratu Publikoak arautzen dituen legeriaren barnean, bai Europar Komisioak, zein EAEN indarrean dagoen legeriak eta baia Nafarroako Legeak ere, bestelako kontratazio publiko bat egiteko aukera ematen du.

Adibidez, 2008ko ekainean argitaratutako !Autonomia erkidegoko administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko akordioak" aukerak ematen ditu bestelako kontratazioak burutzeko.

Udal instituzioetatik bestelako politik bat aurrera eramatea ezinbestekoa da. Krisialdi ekonomikoari orain arteko eskema askorekin apurtuz soilik egingo diogulako aurre. Kontratu Publikoak eta erosketa publiko justuak egitearen bidea jorratu behar dugu. Udal Langileen lan baldintzak



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

bermatzeaz gain, eremu bakoitzeko lan hitzarmenen errespetua lan segurtasuna bermatzea ingurumenaren babesa, hizkuntza irizpideak errespetatuz euskararen presentzia bermatzea, berdintasun irizpideak, ezgaitasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen presentzia bermatzea… eremu oso zabala dugu garatzeko.

Erakunde Publikoek, Kontratu eta erosketa publikoaren alorrean urratsak emateko garaia da. Euskal Herriko instituzioek, oro har langile, emakume, ezgaitasunak dituzten pertsona, ingurumen eta hizkuntza eskubideak bermatzeko garaia iritsi da.

Hau guztia kontutan hartuta, BILDU udal taldeak ondoko mozio hau aurkezten du, osoko batzarrean eztabaidatu eta udalak bere egin dezan.

1. Udal honek, hemendik aurrerako kontratu eta erosketa publiko guztietan, indarrean dagoen legediak ematen dituen aukerak baliatuz, "klausula sozialak" txertatu eta aplikatzera onartzen du.
2. Udal honek, aipatutako klausula horien lanketa, garapen eta jarraipenerako konpromisoa hartzen du, beharrezkoa balitz, helburu hori duen lantalde bat sortuaz edo dagokion batzordera bideratuaz.

Euskal Herrian, 2013ko abenduan

Bilduko Bozeraemailea"

Alkateak gaia aurkeztu du eta esan du helburua Udalak ateratzen dituen plegu guztietan edo ahal den gehienetan irizpide berdintsuak, klausula sozialak deritzon irizpide hauek txertatzea, hain zuzen, bermatzeagatik administrazio publikoak egiten dituen kontratazioetan udalak helburutzat ditugun irizpide horiek gizarteratuak izan daitezen.

Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du ados daudela baina bere zalantzak azaldu ditu udal gobernua betetzeko gauza izango den, batetik ez dakielako benetan sinisten duen udal gobernuak klausuletan eta betetzeko konpromezua hartuko duen. Udal langileen lan baldintzan bermatzeaz gain, eremu bakoitzeko lan hitzarmenen errespetua, lan segurtasuna bermatzea ingurumenaren babesa, hizkuntza irizpideak errespetatuz euskararen presentzia bermatzea, berdintasun irizpideak, ezgaitasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen presentzia bermatzea, iruditzen zaie gaur arte horiek denak ekiditu egin direla eta benetan eurek honetan sinisten dutela eta eskatu du hemendik aurrera udalak benetan aplikatzea.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) esan du ez zaizkiola gaizki iruditzen baina idazketak interpretaziorako bidea ematen duela, izan ere enpresa batek udalarekin kontratatu nahi badu eta lan batzuk egiteko pertsona zehatz batzuk kontratatzea eskatzen bazaio, esaterako gizarte-bazterketa egoeran, plantillarik gabe aurkeztu beharko du. Horrek eragingo du aldi baterako langileez osatutako enpresak aurkeztea. Praktikan ez dituela hain emaitza onak ematen eta askotan ere udalaren gaineko araudia dela-eta ez duela erabakitzeko aukera izaten, hortaz ondo ikusiagatik ere ez du uste %10a lortuko denik.

Alkateak esan du, alde batetik, udala saiatzen ari dela bere irizpidetan hauek txertatzen eta txertatu dituela esaterako, Foru Aldundiak bideratu dituen diru laguntzetan kontratatzeko brigadan kontratatu direnak, kontratatzeko irizpide


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

hauetakoak sartuta zeudela, baina beste gauza bat da ze emaitza ematen duen horrek, eurek ezin dutela bermatu hau jarrita zuzenean horrelako pertsonak etorriko direnik, baina, bai gutxienez irizpide horiek kontutan izan behar direla.

Ondoren bozkatzeari ekin diote

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 10 boto(3 EAJ-PNV; 1 PSE-EE, 5 BILDU,1 ARALAR)

**Kontrako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia:** Kontratu publikoetan, “klausula sozialak” txertatzea proposamena onartu da

------------------------------------

## 4.2.- SAHARAKO HERRIAREN ALDEKOA EAJ-PNV TALDEAK AURKEZTUTAKOA.

**“SAHARAKO HERRIAREN ALDEKO MOZIOA –**

Euskadi Sahara koordinakundeak Saharako Arabiar Errepublikaren aldarrikapenaren 38. urteurrenean aurkeztu duen eskariaren kariaz, eta azken urteotan Mendebaldeko Saharako gatazkaren inguruan aurrerapenik egin ez delako ikuspuntua partekatzen dugula,esate baterako:

- Mendebaldeko Saharako lurraldearen bi herenen okupazioa, urtetan eta urtetan luzatzen dena eta indar militarrek babesturiko 2700 km luze den minaz josiriko hesi batek bermatzen duena.

- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiapena. Etenik gabe jarraitzen duena eta zenbait arlotan, arrantzaren kasuan bezala, europar batasunaren konplizitatearekin bermatzen dena.

- Mendebaldeko Saharako herritarren oinarrizko giza eskubideen etengabeko zangopilatzea. Saharar herritartasunaren aldeko aldarriak, okupazioaren inpunitatearen babespean itotzen jarraitzen dute. Urtez urte, giza eskubideen aurkako erasoen testigantzak, nazioarteko begiraleen pasibotasuna areagotzen den era berean areagotzen direlarik. Arlo honetan, gogoratu besterik ez dugu Nazio Batuen Erakundeak, munduan zehar hedaturik dituen bake misioen artean, Mendebaldeko Saharakoa dela giza eskubideen arloan eskuduntzarik ez duen misio bakarra.

**ZUMAIAKO udal**ak saharar herriaren kausarekiko atxikimendua erakutsi nahi du eta honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Komunikabideetan orokorretan eta udalak komunikazioarako dituen euskarrietan saharar herriari babesa adieraztea

EAJ-PNV udal taldeak

Zumaia, 2014ko otsailaren 19a"

Montse Aranak (EAJ-PNV) proposamena aurkeztu du eta testua irakurri du.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) esan du gai hau ez dela inondik inora mugitzen nahiz enbaxadore asko bertaratu; Morrokok egiten duen oposizioa bere horretan jarraitzen badu ez du etorkizunik ikusten, nolanahi ere behintzak eskatzen ez delako ez dadila izan.

Alkateak adierazi du erabat ados dagoela esandako guztiarekin, eta Saharai egindako aukera izan dutelako plenoan dauden batzuk behintzat, egoera erabat lazgarria dela han daukatena eta gutxienez gazteak nahiko berotuta zeudela berriro ere armak hartzeko e.a. eta hori adierazgarria dela ze egoeretan dauden, konflikto hau Nazioarte mailan ahaztuta dagoena, seguru asko hemen Euskal Herrian eta Espainia mailan ez da horren ahaztua baina Nazioarte mailan bere iritziz oso ahaztutako gai bat dela zoritxarrez; beraiek pairatzen ari diren sufrimendua erabat txarra dela, parte bat Argelian dagoela eta, beste parte bat bere herrian dagoela, baina egundoko zapalkuntzarekin zeren Marruecos ari da bertan eta bertako adierazgarriak diren hainbat mineral e.a. ateratzen handik eta petroleoa eta bertako jendea erabat baztertuta dagoela bere herrian bertan.

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak:** 10 boto(3 EAJ-PNV; 1 PSE-EE, 5 BILDU,1 ARALAR)

**Kontrako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia**: Saharako herriaren aldeko proposamena onartu da

----------------------------



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.-**

1.- Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du ZumaiaZu aldizkaria, gaur onartu den urriko aktan azaltzen zen galdera bera egin zutela, Urtarrileko plenoan gauza bera esan zutela, eta Alkateak esan zuela, gehiago ez dela gertatuko atzerapena, eta orain berriz egoera berdinean gaudela. Argitu du langile bat gaixotzea eta bere eskubidea duela eta horren kontra ez doazela, baina ulertzen ez dutena da udalak enpresa batekin baldin badauka kontratua nola pasatzen den langilea gaixotu eta dena hankaz gora gelditzea.

Alkateak esan du ez dela bakarrik langileen gaixotasuna izan, langileen gaixotasuna gehi ordenagailuaren informazio galtze bat. Orduan kasualitatea konjugatu dira bi gauzak eta oker ez baldin banago baita ere epe bat zabaldu du, usten dut epe berri bat eman zaizuela eman zaigula guri ere bai, berridazteko baina arazo teknikoak medio,

2.- Montse Arana (EAJ-PNV) esan du batzordetako aktak eta deialdiak publikoak ez direla, hala gogoratu zuela Idazkariak aurreko plenoan-, jarraitzen duela udal gobernuak jarraitzen duela udaleko korreo ofizialetatik zinegotzia ez diren pertsonei deialdiak eta aktak bidaltzen; eskatu dute bakarrik zinegotziei bidaltzea, ez dakitela zer dagoen horren atzean, baina azaltzen diren izenak ez direla zinegotzienak eta eskatu dute legea betetzea.

Alkateak esan du denek badakitela nondik datorren aholkulari batzuk zeudela, eurek apustu egin zutela aholkulariagatik, aholkulari horiek aurreko legealdian ere PNV-k izendatu zituela eta batzordetara etortzen zirenak, gero legealdia aldatu zen eta EAJ-PNVek erabaki zuela irizpidez aldatzea, alegia aholkulariak ezetz. Udal gobernua enpeinatzen zela alde egiteko, eta situazio batzuek egon zirela batzorde batzuetan non aholkulariak ez ziren etorri; hortaz, eurek ere erabaki zutela aholkulari gabe jardutea baina, galdetu du aldiz zertako ukatu informazio bat herritarrei edo eurek aholkulari kontsideratzen ditugunei;

Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du udaletxean teknikariekin badagoela aholkularitza nahikoa. Udal gobernuaren konpromezua barne araudiko erregelamendu bat egitea zela partaidetza bultzatzeko, legealdia bukatzeko urte bete falta dela eta ez dutela horren berri. Berriro esan du eskatzen duten gauza bakarra dela zinegotziei bakarrik bidaltzeko.

Alkateak galdetu du ea gaizki ote dagoen herritar bati informatzea; legeak esaten duela batzordeak itxiak direla, baina bere ustetan hori ez dagoela ondo eta publikoak izan beharko luketela, eta filosofia horrekin parte hartze prozesua eta gardentasuna bultzatzen dutela eurek.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du orduan herritar guztiei bermatu beharko zaiela informazio eskubidea eta ez bi pertsonei bakarrik.

Aitor Leizak (Aralar) gogoratu du informazioa bidaltzen zaien pertsona horiek idatzi bat sinatu zutela esanaz informazio hori konfidentziala zela.



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Edurne Egañak (EAJ-PNV) idatzi hori ea idazkaritzan depositatuta dagoen galdetu du.

Aitor Leizak (Aralar) esan du bere aholkulariak aurten ere sinatu duela eta EAJ-PNVek pasadan legealdian baita ere.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du kontu hau deigarria egiten zaiola, eta herritarren ordezkariak direla baina ogasuneko batzordet batzutan konfidentzialtasun ezarekin ibiliko balira bezala tratatuak izan direla, zenbait informazio ukatu zaienean, eta azpimarratu du eurek udal gobernu kideak bezain herritar-ordezkari direla.

Alkateak hori bakarrik kasu puntualetan gertatu dela esan du.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) nabarmendu du zenbait egoera pertsonalek eragiten dutela informazioa tentuz erabiltzea; nolanahi ere ardura maila minimoa bermatuta bere ustez informazioa guztientzat erabatekoa izan behar duela eta hortaz, ba, gardentasun osoa guztientzat.

----------------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak hogeita bost minutu gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 77**

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de febrero de dos mil catorce, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión ordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

| | |
|---|---|
| **Presidente:** | Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta |
| **Concejales:** | Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua |
| | Sr. Peru Fernandez-Arroiabe Txapartegi |
| | Sr. Eneko Agirre Maiora |
| | Sra. Maitane Agirre Arrieta |
| | Sr. Montse Arana Perez |
| | Sra. Edurne Egaña Manterola |
| | Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua |
| | Sr. Aitor Leiza Alberdi |
| | Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez |
| **No presentes** | Sr. Iñaki Ostolaza Esnal |
| | Sr. Xabier Gallastegi Idigoras |
| | Sr. Isidro Fernandez Echave |
| **Secretario:** | Gorka Urgoiti Agirre |

**ORDEN DEL DÍA**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

## 1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR: (Núm. 72 - 31.10.2013)

El acta núm. -72- ha sido aprobada

## 2.- HACIENDA.-

### 2.1.- DICTAMEN: APROBACION DEFINITIVA, SI PROCEDE DE LA MODIFICACION DE CREDITO núm. -31-

***"DICTAMEN DE LA COMISIÓN DE HACIENDA DE 21 DE FEBRERO DE 2014: APROBACIÓN DE LA 31ª MODIFICACIÓN DE CRÉDITO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL PARA 2013.***

**ANTECEDENTES**

En la comisión de Hacienda de 21 de febrero de 2014, se propuso la 31ª modificación de crédito del Ayuntamiento de Zumaia, correspondiente a la modalidad de transferencia de créditos.

Esta modificación de crédito se debe a que en las partidas que se encuentran a continuación no hay saldo suficiente para contabilizar las últimas facturas. En el programa funcional 422: en reparaciones, luz, gas y consejo escolar se ha gastado más de lo presupuestado. En el programa 432 el saldo disponible no es suficiente para las últimas facturas y en el programa 433 sucede lo mismo con las últimas facturas de Iberdrola.

- **En el Ayuntamiento de Zumaia:**

La baja de crédito de la partida de la que se ha solicitado la transferencia de 78.279,47 euros no irá en detrimento del servicio. Asimismo, la mencionada minoración de crédito no afectará ni supondrá un obstáculo a los intereses generales de dicha entidad. Con esta disminución el crédito global se queda sin saldo y disminuye la partida del servicio de recogida de basura a domicilio, ya que, en la misma ya están contabilizados todas las facturas del 2013 y todavía queda saldo disponible.

El cambio propuesto no modifica el importe total del presupuesto aprobado inicialmente, ya que el incremento de crédito de 78.279,47 euros se financiaría con bajas por importe igual en otros créditos presupuestarios. Este importe es necesario para pagar algunas facturas del 2013.

La transferencia de créditos entre varias partidas del presupuesto de gastos, se regulan según la norma foral 21/2003, cumpliendo con los requisitos del artículo 29.4.

Esta transferencia de créditos no genera ningún déficit en el total del presupuesto, debido a que los importes que aumentan son iguales que los que disminuyen.



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

La transferencia de crédito propuesta es entre distintos programas funcionales, estas serán aprobadas por el presidente de la entidad cuando la variación acumulada de modificaciones en los programas de origen y destino no supere el 25% de sus consignaciones iniciales previstos. Pero, en este caso como se supera el 25%, el acuerdo será adoptado por el pleno de la corporación.

